

KONTROL MOZIOA

LOIOLAKO KUARTELETAKO HITZARMENARI BURUZKOA

Juan Carlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko martxoaren 17an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Loiolako kuarteletako lur eremuaren salerosketa hitzarmena 2023ko abenduan sinatu zen. 2025eko abuztuan bertan behera gelditu zen behin-behineko, mugaketari buruzko Costasen ebazpena eta 230/2024 demandaren zehaztapenak ezagutu arte.

Hilabete bat da Costasen ebazpena ezagutu zela, eta demandaren ezagutza aspaldikoa da. Otsailean esan zen hitzarmena berraktibatzeke unea zela, baina oraindik ez da egin.

EH BILDUK azaldu zuen otsailean une aproposa zela 2023an sinatutako hitzarmena hobetzeko, bai salmentako prezioa birnegoziatzeko eta baita aurreikusitako etxebizitza babestuen ehunekoa ahal den gehien handitzeko ere. Bestalde, publiko esan genuen bezala, aukera paregabea izan daiteke hitzarmenean Eusko Jaurlaritza sartzeko, instituzioen arteko operazioa izan behar duelako eta hasieratik hiru instituzioak bertan egotea positiboa delako.

2025eko martxoaren 17an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean Eneko Goia Alkatea interpelatu genuen gai honen gainean. Berraktibazioa ez dela gauzatu baina horretan ari direla esan zitzaigun. Azaldu zitzaigun ezinezkoa dela prezioa eta etxebizitza publikoen ehunekoa aldatzea ere eta Eusko Jaurlaritzaren papera aurrerago erabakiko dela.

EH Bilduk berriz, pentsatzen du instituzio publikoen arteko harremanetan aukerak daudela hitzarmena hobetzeko. Orokorrean, eta batez ere etxebizitza publikoen kopurua ahal den handiena izateaz hitz egiten dutenean instituzio guztiek.



EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu



Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horregatik guztiairengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

- 1.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Defentsa Ministerioarekin duen hitzarmena berraktibatzerakoan, birnegoziatu dezala salmentako prezioa, ahal den guztia murriztuz.
- 2.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari birnegoziatze honetan aurreikusi dezala eraikiko diren etxebizitza babestuak ez direla izango guztien %40a soilik, baizik eta bideragarritasun ekonomikoa bermatuz, egin daitezkeen guztiak.
- 3.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, birnegoziatze honetara Eusko Jaurlaritza gonbidatzea eta hitzarmenaren parte izan dadin ahalegin guztiak egitea..

Donostian. 2025eko martxoaren 20an



Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea